

Ekitaldia azaroaren 7an egingo dute, Gasteizko Goiuri Jauregian,  
Kalitatearen Europar Astearen baitan

## Eikenek eta Vitoria-Gasteiz Film Officek ikus-entzunezkoen sektorearen eraldaketaren erronkak aztertuko dituzte jardunaldi batean

Eiken - Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak eta Vitoria-Gasteiz Film Officek jardunaldi profesional bat egingo dute datorren azaroaren 7an, ikus-entzunezkoen sektoreak egungo eraldaketa prozesuan dauzkan erronkak aztertzeko. Topaketa Goiuri Jauregian egingo dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat entitate eta erakundek Kalitatearen Europar Astearen baitan antolatu dituzten jardueretako bat izango da.

Ekimenaren helburua euskal ikus-entzunezkoen sektoreko eragile eta profesionali eztabaidarako foro bat eskaintzea da, kalitatearen eta berrikuntzaren ikuspegitik sektorearen lehiakortasunean eragin handiena duten alderdiak azter ditzaten. Jardunaldiak digitalizazioak ekarri dituen aukera nahiz mehatxuetan jarriko du arreta, baita enpresa eta erakundeek partekatutako estrategia bat ezartzeko beharreen ere.

Jardunaldia 10:00etan hasiko da, eta 13:00etan amaitu. Bertara hurbiltzen direnek sektorearen eraldaketa prozesuarekin lotutako zenbait esperientzia ezagutu ahal izango dituzte. Hauek izango dira hizlarietako batzuk: Juan Carlos Villamor, sortu berri den Arabako Ikus-entzunezko Produktoreen Elkarteko (APIKA) lehendakaria; Rubén Gundín, Spain Film Commission elkarteko kidea; Ramón Delgado, Tecnalia Mediako zuzendaria; Kepa Sojo, zinemagilea eta UPV/EHUko Unibertsitate Hedakuntzako zuzendaria, eta Joseba Fiestras, FestVal jaialdiaren zuzendaria.





Klusterra eratu zenetik, Eikenek etengabe eman dio laguntza Kalitatearen Europar Asteari. Aurtengoa zazpigarren edizioa da, eta, aurrekoetan bezalaxe, helburu nagusia sektorearen barruan bikaintasuna eta berrikuntza oinarri dituzten estrategiak sustatzea da, jardueraren oraina finkatzeko eta etorkizuna bermatzeko tresna baliagarri bilaka daitezzen.

Jardunaldiari babesa eta laguntza eman diote, halaber, zenbait erakundek, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, Gasteizko Udalak eta Euskalit - Bikaintasunerako Euskal Fundazioak, besteak beste.

**Bilbo, 2011ko urriaren 27a**

-----

**KALITATEAREN EUOPAR ASTEA SEMANA EUROPEA DE LA CALIDAD**

**Ikus-entzunezkoak:** sektorearen **eraldaketa**ren erronkak

**Audiovisual:** Los desafíos de la **transformación** del sector

Azaroak 7  
Noviembre

Palacio Villasuso  
Vitoria-Gasteiz

